

## Kontuak kontatzen ikasten

Pello Añorgarekin  
aritu dira ikasleak ▶ 7



# Leitzako Aurrerak ez daki txapela berea denentz

**LIGA ▶** Lurraldekako 1. Mailako Liga «ustez» irabazi du futbol taldeak, baina ez dakite garbi

**IGOERA ▶** Laster hasiko du igoera fasea, baina oraindik arerioen berririk ez du Aurrerak ▶ 7

**TOLOSALDEA ▶**

## Hauteskunde eguneko emaitzen ondorenak

Zehaztapenak, iritzia, gertaerak... ▶ 2

IMANOL GARCIA



## Guraso eta haurrentzat antzerki saioak gaur eta bihar

**ZIZURKIL ▶** Atzo 'Xomorroak', gaur 'Ugaztun baten ametsak' eta bihar tailerrekoak ▶ 5

### BIHAR EZ DA 'HITZA'-RIK IZANGO

EAEko hauteskunde egunetan erredakzioak lan egin zuen, astelehenean HITZA argitaratzeko, eta horregatik, lan taldeak gaur jai hartuko du eta bihar ez da HITZARIK izango. Egunkaria etzitik izango duzue berriro eskuartean.



Apirilak, 22 ostirala,  
botua emateko  
argazki eguna

hitza lehiaketa

**BOTUA EMATEKO**

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Telefonoz: 943 65 56 95

Botuaz gain, datu pertsonalak behar ditugu.

Irabazleak, apirilaren 24 igandeko egunkarian  
Argazkiak [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)  
webgunean ikus ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta



ESKUALDEKO EMAITZAK ▶

# Bidegoiango, Gazteluko eta Leaburuko emaitza zuzenak

Atzokoak ez ziren zuzenak; kopuruak zerbait aldatu dira; abstentzioa, %30ekoa

Herria	EAJ-EA		EHAK		EH Aralar			PSE-EE		PP		EB		Besteak		Absten.	
	2005	2001	2005	2001	2005	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001	2005	2001
Bidegoian	163	187	83	85	5	1	5	8	5	2	3	2	0	0	0	%26,9	%16,7
Gaztelu	58	58	49	49	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	%14,1	%16,1
Leaburu	89	115	132	128	16	4	1	7	9	4	7	2	0	0	%17,6	%15,5	
<b>Tolosaldea</b>	<b>EAJ-EA</b>		<b>EHAk</b>		<b>EH Aralar</b>			<b>PSE-EE</b>		<b>PP</b>		<b>EB</b>		<b>Besteak</b>		<b>Absten.</b>	
	10.952	14.306	7.145	6.907	1.208	2.441	2.259	1.739	2.988	1.123	1.276	122	109	%30,8	%20,4		

JOXEMI SAIZAR

Igande gaueko presakako zenbaki festa pasatu ondoren, behin betiko emaitzak lortu eta ikusita, Tolosaldeko hiru herritako emaitzak gaizki jaso eta gaizki argitaratu zituen HIRZAK. Eusko Jaurlaritzak Internetez banatutako emaitza horien artean Bidegoian, Gaztelu eta Leaburukoak ez ziren zuzenak izan. Ondoko koadroan dituzue zuzenak. Horrek eragina —txikia bada ere— badauka alderdi bakoitzak eskualdean lortutako kopuruan eta abstentzioaren kopuruan.

## EAJ-EA 21 herritan irabazle

Datu horiek kontuan hartuta, EAJ-EA koalizioa eskualdeko 21 herritan izan da irabazle eta EHAk beste zazpi herritan: Aduna, Altzo, Baliarrain, Belauntza —boto bakarrarengatik—, Leaburu, Lizartza eta Orea. Duela lau urteko emaitza



Gizon bat Tolosako Izaskun auzoko eskoletan botoa ematen igandean. LEIRE MONTES

tzekin konparatuz. Aduna eta Altzon eman dira aldaketak, lehen EAJ-EA izan baitzen irabazle. Beste guztietan duela lau urteko irabazle bera izan da. Bitxia da Gaztelun bi alderdi nagusiek boto kopurua erreprokatzea.

Alderdien portzentajetan gora-behera batzuk ere izan dira 2001eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeekin konparatuz: EAJ-EAK sei puntu jaitzi ditu Tolosaldean, EHAk EH-k baino lau puntu gehiago lortu ditu, PSE-EEK bi puntu igo ditu, PPK hiru puntu eta erdi galdu ditu eta EB ia parean gelditu da.

Partaidetza aldetik ere, EAEko emaitzen isla da Tolosaldea: %30,86ko abstentzioa izan da, duela lau urte baino hamar puntu gehiago. Herriz herri begiraturaz, beste urteetan bezala, Orea izan da abstentziarik txikiena —%1,3— eta Zizurkilena handiena —%35,4—.

## Gertaera bereziak

Igandean hauteskunde eguna orokorrean normaltasunean joan baldin bazen ere, gertaera batzuk ere izan ziren. HIRZAK jakin ahal izan duenez, Lizartzan adibidez, hainbat herritarrek EAJ-EAko apoderatua «bidali» egin zuten herritik, bere kargua hartzen utzi gabe. Alkizatik ere beste kexu bat iritsi da erredakzio honetara: eguerdiko 12:30ean EHAk boto paperak falta ziren beste guztien ondoan. «Mahaiko lehendakariari esan ondoren, akats baten ondorioz ahaztu egin zituztela ikusi zuten. Pentsatu nahi dugu deskuidoa izan zela. Zeinek daki?», adierazi du alkizar batek.

## IRITZIA ▶ GARBIÑE BIURRUN (MAGISTRATUA)

### Aldaketa?



**P**orra guztiak —nahiz afizionatuak nahiz profesionalak— pikutara; iritzi gehienak oker; kalkulu guztiak alferrikakoak; ezusteko berehalako etorkizuna; Jaurlaritza osatzeko buruhauste berriak... hau da apirilaren 17ko hauteskundeetatik atera daitekeen bapateko eta presazko lehen ondorioztapen bat. Hiritarrok gara asmatu dugun bakarrak, azkenean gure ahotsa garbi eta ozen entzun baita.

Ahotsa zabaldu dugu, bai, baina nire iritzi, bi galderei eman behar zaie

erantzuna: ahots horren bitartez zer adierazi nahi izan dugun eta zertarako. Alderdi politikoeke diotenen arabera, hiritarrok lehian zeuden ideia eta egitasmo guztiak bedeinkatu ditugu, baina argi dago ez dela horrelakorik gertatu, ez erabat, behintzat.

Baieztapen hau ez da iritzi bat soilik. Herenegungo datuek diotena baizik. EAJ-EA koalizioak zigor handia jaso duela esan dezakegu, 140.000 boto galdu dituela kontutan hartzen badugu; PPri 120.000 boto aldegin diote eta 14.000 boto EBri.

Botoak irabazi dituztenak ere badira: PSE-EEK 20.000 boto berri lortu ditu eta EHAk 7.000 boto EHrekin konparatzen badugu. Indar berria ere izango da Legebiltzarrean: ongi etorri, Aralar.

Argi dago parte-hartzea nabarmen jaitzi dela oraingo honetan eta galdutako boto gehienak etxean gelditu direla, egoera lasaiago baten ondorioz. Baina ez du ematen hori arrazoi bakarra denik EAJ-EA koalizioak boto mordo horren galera uler ahal izateko. Azken finean, bestela, onartu beharko genuke krispazio egoera berezietan —2001eko bezalako, hain zuzen ere—, hiritarrok axolarik gabe ematen dugula gure botoa edo, behintzat, alderdien eskeintzak eta egitasmoak gehiegi aztertu gabe. Eta ni ez nago honen ados: 2001ean, nahiz eta liskar politikoa benetan gogorra izan, hiritarrok apustu bat egin genuen politikaren alde, bakearen alde, akordioaren alde eta herri honen erabakitze es-

kubidearen alde; apustu hori ez zen inolaz ere itsua edo arrazoigabekoa izan.

Zer gertatu da orain? Ezer aldatu da? Ez du ematen, bada. Apustuak tinto jarraitzen du, politika eta bakea nahi ditugu, eta hau berriro ere adierazi dugu. Badakit Jaurlaritza osatzeko arazoak egongo direla, badakit ETaren indarkeria salatzen ez dutenek aurrerapauso bat egin dutela, eta badakit akordioetara iristea benetan zaila izango dela. Baina badakit ere hiritarrok hitz egin dugula eta alderdi guztiek jakin beharko dutela ahots hori bideratzen, bestela jai dute.

Aldaketarik, beraz, ez da gertatu. Aldaketa hutsa aldarrikatzen zutenek ere ez dute lortu beraien helburua, hau da, nazionalismoa Jaurlaritzatik ateratzea. Ala lortu dute?. Ala ez zuten horren gauza garbirik nahi?

GUTUN@K ▶



## Hauteskundeez eta Ibarraz, ibartar batek, Londresetik

Iepa.

Azken hilabeteotan Londresen dabilen ibartarra naiz. Bart gauean, hala ere, Ibarraz bertan sentitu nitzin, Euskal Autonomi Erki-degoko (EAE) Legebiltzarreko hauteskundeak zirela eta, Internetak badu-eta gaitasun hori.

Hauteskunde kanpainen zehar Londresen bizi garen gure euskal famili txikiak bozkatzeko aukerarik gabe geratuko ginela uste genuen, Aukera Guztiak (AG) plataforma aurkeztu ezinik utzi baitzuten. Gero, Euskal Herrialdeetako Alderdi Komunista (EHAK) azaldu zen.

Espainiako enbaxadara joan, EHAK alderdiaren papertxoa eskatu, eta postaz bozkatzeko egun bakarra genuela ohartu ginen halako batean; berandu!

Gure estimazioak egiten aritu ginen hemen, ezker abertzaleak Gasteizko Legebiltzarrean hamar eserleku lortuko zituela espero nuen nik. Zenbat lortu ditu?

Bederatzi. Eta Aralarrek beste bat. PNVkoek poz handiarekin hartuko lukete Aralarrena, beste lau urtean gobernu eta lehendakari-tza mantenduko baituzte juxtu-juxtuan; gutxienez Julio Ibarra kazetaria *Teleberri*-n mantentzen badute, ez diet gehiago eskatuko.

Ezker abertzaleak 702 boto lortu ditu Ibarraz, emaitza bikainak. Hala ere, ibartarrok badakigu Udaleko egoera zein den, ibartarrok eta amezketarrek —hortan ere amezketarrak zuek!— eta beste hainbat eta hainbat herritan ezker abertzaleak herri babesa bai, baino ez dugu deuz ere gehiago...

Pozik gaude, baina guztia dugu egiteke. Oinarrizko eskubideak lortzeko gaur egungo testuinguru juridiko-politikoari golak sartzin jakin beharra dago.

Zorionez, Ibarraz Gari ez da golak sartzin dakien bakarra.

JOKIN MUJIKA  
ODRIOZOLA ▶ IBARRA

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

# «Ederki landutako berdinketa»

3na berdindu zuen Laskorainek Lezon

LEIRE MONTES

«Ederki landutako berdinketa» lortu zuen Laskorainek Lezoko polikiroldegi «dotorean» (3-3). Allerru Bekoerrotia izan zuten aurrez aurre. Aurreko jardunaldia arte porrotik ezagutzen ez zuen liderra menperatu ondoren, puntu bakarrak horitxoak ez zituela asebeteko zirudien. Dena den, «norgehiagoka bere osotasunean aztertzen badugu, ontzat eman daiteke eskuratutako saria».

«Laino ilun batek estali zuen garaipenerako bidea lehen za-

tian: lezotarrek asmatu zuten lehen gola egiten areaz kanpoko pozoindun jaurtiketa baten bitartez. Altunak bere eskuin belauari biraketa zakar bat egin zion eta norgehiagoka utzi behar izan zuen. Hau gutxi ez balitz, Allerrukoen beste bi gol iritsi ziren markagailuan hiru eta hutseko etsigarri bat ezarritz». Baina zorte txarrak ez zituen ikastolakoak kokildu, (eta Yustos hazitarakoak gidatuta, laino tartetik eguzki printzak agertzen hasi ziren, ibartarrak estrategi jokaldi bat maixuki amaitu ostean».



Altuna; lesionatu egin zen. i.e.

Yustosek bi, Gilek bat

Handik gutxira, berriz ere Yustosek asmatu zuen lezotarren atea zulatzen. «Laskoraindaren zeruan ostarteak ageri ziren jokalariek aldageletarako bidea hartu zutenean. Dena galduta zirudienean, futbolearen hain beharrezkoak diren grina eta amorrua ernaldu ziren haiengan bigarren zatiri itxaropentsu ekiteko». «Mahaiko epaileak ez zuen lan gehiegirik izan 20 minutu horietan», gol bakarra izan baitzen, Laskorainek Gil «erregaitzarena», hain zuzen ere. Hala, 3nako

berdinketarekin, amaitu zen partida; balekotzat jo dute puntua tolosarrek.

Nahiz eta hasiera batean la-riagoa iruditu, Altunak belau-riko zainbihurtu bat dauka. Bi astetan geldirik egon beharko du. «Osatze azkarra eta egokia opa diogu. Bere printzesak egunero ematen dion edabe miragarriaren dosia handitzea ezinbestekoa izango da».

Bost jardunaldi falta dira txapelketa amaitzeko, 15 puntu jokoan. Egizabalen mutilek «hirugarren postua lortzea» dute jomuga. «Ez da arazo handirik izango joan den larunbatean Amatriain, Alonso, Altuna, Barriola, Domentxe, Gil, Saldias, Yustos eta Zubillaga jokalariek erakutsi zuten grina eta amorruarekin jokatzeko badute».

Bestalde, hauek dira «etorki-zunean hosto indartsu bilakatu diren Laskorain Kirol Elkartaren kimuen» emaitzak: «Arregi eta Joxetoren adarrak galduta izan zuten, 4-5 eta 9-4. Alonsotarren neskek 3-1 irabazi zuten. Bejondeizuelak».

TOLOSA ▶

## Lillok dimisioa aurkeztu eta Terrassa utzi du

Juanma Lillo entrenatzaile tolosarrak dimisioa aurkeztu zuen herenegun, eta Terrassa (2.A) utzi du. Lleidan partida galduta, taldeko presidenten Guillermo Cabellok haren dimisioa onartu eta prentsaurrean eman zuen horren berri. Sailkapenean azken hirugarren da Terrassa, 20. postuan. Jose Delgado kataluniarrek ordezkatuko du.

TOLOSA ▶

## Kubako iraultza sozialista hizpide udaletxean, bihar

Tolosaldeko gaztetxeek eta gazte asanbladek antolatuta, Kubako iraultza sozialista izango da bihar hizpide, udaletxean, 19:00etan. *Kubako iraultzaren bilakaera ikuspuntu marxistatik* izenburupean, Ibon Artolok eskainiko du solasaldia, euskaraz. «Kubako egoera gertuagotik ezagutzeko» antolatuta du saioa eskualdeko gazte-riak.

TOLOSA ▶

## Galtzaundiren bi saio, euskara ardatz hartuta

*Tolosa, hiri euskalduna* kanpainaren baitan, bi hitzaldi antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Gaur, Emun kooperatibako Ibon Usarralde *Euskara planak lan munda* izango du mintzagai. Bihar, Debagoieneko Aintzane Lasak *Euskara planak merkataritzan* saioa eskainiko du. Bi hitzaldiak 20:00etan izango dira, Kultur Etxean.

TOLOSA ▶

## Drogen inguruko solasaldia, bihar, Orixe institutuan

Drogomenpekotasunen prebentziorako programa berria aurkeztuko dute, bihar, Orixe institutuan. Gurasoei drogen inguruan informazioa ematea da bilerraren helburua. beren seme-alaben heziketan lagungarria izan dadin. Gehienbat DBHko 1. zikloko ikasleengurasoei dago zuzenduta saioa. 18:30ean hasiko da, liburutegian.

ALTZO ▶ IPUIN KONTAKETA

## ‘Bakartxoren zapatilak’ ipuin kontaketa gaur, «ametsen munduan murgiltzeko»

Joseba Ramirezek eskainiko du saioa, txotxongiloak erabiliz; 17:00etan hasiko da emanaldia, Ertotxen; Udalak antolatuta du

L. MONTES

«Ametsen munduan murgiltzeko», etxeko txikienez antolatuta du gaurko Altzoko Udalak: *Bakartxoren zapatilak* ipuin kontaketa.


Imanol Urbieta musikagile zarauztarraren ipuin batean

dago oinarrituta lana, eta hainbat gai lantzen ditu: etxeko arteko harremanak, lana, zabortegia, birziklatzea... Bakartxo da pertsonaia nagusia; eskolatik etxera itzultzean, neskatilari berebiziko gauzak gertatuko zaizkio.

Joseba Ramirezek kontatzen

du ipuina, txotxongiloak erabiliz. 3-11 urte bitarteko umeentzat da aproposa Kixka antzerki taldearen emanaldia.

Kontaketa 17:00etan hasiko da, Ertotxen. Gurasoak eta seme-alabak «mundu magikoan murgiltzera» animatu ditu Udalak.



### Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek 2005eko martxoaren 21ean egindako bilan honako proiektu honi hasierako onespina eman zion zenbait baldintzarekin:

EZ.5 "Beotibar kalearen luzapena" inguruko Urbanizazio Proiektua.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HAMABOST EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egin eta bihar munetik kontatzen hasita) jendeaurrean jarrnita egongo da, Hingintza Planarendu Erregelamenduko 141 artikuluko eta Hingintzen Planingintza eta Kudeaketarako tresnak izapidetzeko ekainaren 30eko Eusko Legebiltzarren 17/94 Legeko 7. artikuluko xeduetaren arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrria, Hiza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedienteak, inork aztertu nahi badu, Udaletxeko Hingintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, apuramenduko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkateari zuzenduta behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosa, 2005eko apirilaren 11an.  
ALKATEA.

## ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

## ARETO FUTBOLA

## Emakum. Ohorezko Maila.

Goierri-Hegoalde	1-1
Saillkapena ▶	
1. Femesala Elx	64 puntu
2. Navalcarnero	56 puntu
3. UCAM Murcia	50 puntu
4. Zaragoza 2002	47 puntu
5. Preconte Telde	43 puntu
6. Tec. Mostoles	38 puntu
7. Fuenlabrada	37 puntu
8. Ourense	33 puntu
9. Gironella	31 puntu
10. Soto del Real	29 puntu
11. Rioja Diamante	26 puntu
12. Hegoalde Tolosa	25 puntu
13. Goierri	16 puntu
14. Arturo Eyries	14 puntu
15. Valdetres Ferrol	13 puntu
16. Cabanyal Valencia	8 puntu

## 1. Maila B.

Allerru Bekoerrotta-Laskorain	3-3
-------------------------------	-----

## Liga Autonomikoa.

Transportes Lacunza-Makox	5-4
---------------------------	-----

## Nesken Liga. Kopa.

Tinta Villabona-Altzakoak	3-5
---------------------------	-----

## FUTBOLA

## Gorengoen Maila.

Oiartzun-Tolosa	1-1
Saillkapena ▶	
1. Tolosa	67 puntu
2. UPV/EHU	65 puntu

3. Ordizia	60 puntu
4. Real Union B	55 puntu
5. Zarautz	54 puntu
6. Trintxerpe	51 puntu
7. Mondragon	45 puntu
8. Zestoa	43 puntu
9. Hondarribia	42 puntu
10. Mutriku	41 puntu
11. Pasajes	40 puntu
12. Touring	39 puntu
13. Beti Gazte	38 puntu
14. Aloña Mendi	38 puntu
15. Orioko	36 puntu
16. Urola	35 puntu
17. Anaitasuna	35 puntu
18. Bergara	35 puntu
19. Aretxabaleta	34 puntu
20. Oiartzun	19 puntu

## Lurrealdeko 1. Maila.

Tolosa B-Amara Berri	1-0
Saillkapena ▶	
1. Irun 1902	52 puntu
2. Euskalduna	50 puntu
3. Allerru	50 puntu
4. Beti Ona	45 puntu
5. Martutene	43 puntu
6. Ostadar	41 puntu
7. Lengokoak	39 puntu
8. Behobia	39 puntu
9. Vasconia	38 puntu
10. Roteta	38 puntu
11. Astigarragako	34 puntu
12. Mariño	30 puntu
13. Gure Txokoa	28 puntu
14. Amara Berri	20 puntu
15. Ordizia	19 puntu
16. Gure Txokoa	16 puntu

## Lurrealdeko 2. Maila.

Usurbil-Danena	5-0
Intxurre-Hondarribia	0-1
Lasarte Oriá-Amaroz	1-1
Saillkapena ▶	
1. Lagun Onak	27 puntu
2. Usurbil	19 puntu
3. Trintxerpe	12 puntu
4. Danena	12 puntu
5. Gazteak	10 puntu
6. Mariño	8 puntu
7. Munibe	7 puntu

## Saillkapena ▶

1. Dunboa	24 puntu
2. Hondarribia	14 puntu
3. Intermacional	13 puntu
4. Legazpiko Gazteak	12 puntu
5. Eibartarrak	11 puntu
6. Sanpedrotarra	11 puntu
7. Intxurre	7 puntu

## Saillkapena ▶

1. Lasarte Oriá	19 puntu
2. Amaro	18 puntu
3. Urki	18 puntu
4. La Salle	17 puntu
5. Antzuola	11 puntu
6. Zestoa	6 puntu
7. Donibane	3 puntu

## Jubenilen Euskal Liga.

San Marcial-Tolosa	2-0
Saillkapena ▶	
1. Barakaldo	58 puntu
2. Tolosa	57 puntu
3. San Ignacio	57 puntu
4. C. Durango	53 puntu

5. Eibar	47 puntu
6. Zalla	41 puntu
7. Elgoibar	41 puntu
8. San Marcial	40 puntu
9. Aloña Mendi	39 puntu
10. Zugazarte	37 puntu
11. Amorebieta	34 puntu
12. Lagun Onak	34 puntu
13. Olarizu	32 puntu
14. Bermeo	25 puntu
15. Sp. Herrera	23 puntu
16. Casco Viejo	7 puntu

## Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Real Union	0-2
Saillkapena ▶	
1. Athletic	71 puntu
2. Real Sociedad	62 puntu
3. Antiguoko	61 puntu
4. Santutxu	55 puntu
5. Arenas	51 puntu
6. Danok Bat	49 puntu
7. Alaves	46 puntu
8. Real Union	39 puntu
9. Santurtzi	36 puntu
10. San Ignacio	35 puntu
11. Eibar	32 puntu
12. Retuerto	27 puntu
13. Indartsu	26 puntu
14. Tolosa	14 puntu
15. San Viator	12 puntu
16. Sp. Herrera	9 puntu

## FUTBOL 7

## 1. Maila.

Perku Taberna-Ibarrako GA	2-1
Saillkapena ▶	

1. Zuma G.H.	20 puntu
2. La Kabutzia	20 puntu
3. Knauf-Decorac. Nuñez	18 puntu
4. Perku taberna	18 puntu
5. B. Ignacio-Hondarribia	17 puntu
6. Zardoya Otis	14 puntu
7. Robers	14 puntu
8. Ibarrako GA	14 puntu
9. Zibibbo dance club	13 puntu
10. Kroms	13 puntu

## 2. Maila A.

Lanbroa-Dickens - Hispavista.com	4-0
Saillkapena ▶	
1. Pub Oasis	24 puntu
2. Lanbroa-Dickens	23 puntu
3. Rcion. Edificios Estevez	17 puntu
4. Cesar Rueda seguros	17 puntu
5. Bereziartua sagardoa	16 puntu
6. Ikena	16 puntu
7. Buenavista jatebeka	13 puntu
8. Cristaleria Langlass	11 puntu
9. Renta 4	10 puntu
10. Hispavista.com	10 puntu

## 2. Maila B.

Trinkete Ibaeta-Bar Shanti Kirolak	1-3
Saillkapena ▶	
1. R. Izkiña-Pasaia	25 puntu
2. Jalgi kafe antzokia	24 puntu
3. Amazar taberna	22 puntu
4. Trinkete Ibaeta	19 puntu
5. Rotulek.com	18 puntu
6. Bar Shanti Kirolak	15 puntu
7. Fermex-Instalaciones CG	14 puntu
8. St. Etienne Cafe Bar	14 puntu
9. Pub Egarrri	14 puntu
10. Prudey	13 puntu

## TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

## Goierri eta Hegoalde taldeen arteko derbia, lehengoaren haritik

Bana berdinu zuten; ihes egiten diote puntuek Hegoalderi

asistenentzako eta mikroenpresentarako **mintegiak**

**Softwarea eta Aplikazio Informatikoak Alokatzeko Zerbitzuak**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Teknologia azkar zaharkitzen da. Softwarea alokatuz gero, programak erosteko **hasi behar ezazu eta ez duzu instalatu eta mantentze lanaz kezkatu beharrik izango.** Mintegi honetan, zerbitzu hauek kontratatzeko dinu laguntza nola lor dezakezun ere erakutuko dizugu.

(Orduak: 18:00-20:00)

Informazioa eta izena emateko:  
**902 252 595**  
[www.miramoredigital.com](http://www.miramoredigital.com)  
[carlos@miramoredigital.com](mailto:carlos@miramoredigital.com)

**01000**

Tolosako zuzendaria: 21. TX. OSA

Tolosako Lanbide Merkataritza Institutua

Garapendun zuzendaria: 25. ERRETERIA

Don Bosco Lanbide Merkataritza Institutua



## IRATXE ETXEBESTE

Emakumezkoen Espainiako Areto Futbol Ligako Ohorezko Mailako bi talde gipuzkoarrak nor baino nor jarri zituen joan den larunbateko partiduak: Goierri eta Tolosako Hegoalde. Saillkapen orokorreko azken lekuetan diren bi taldeen arteko derbian gehiago zuen jokoan Goierri Hegoalde baino, mailaz jaisteko arriskuan jartzen dituen azken lau postuak gertuago baititu.

Tolosarren jabetza handiagoarekin hasi zen neurketa, etxekoan «posizio okerra eta urduritasuna» baliatzen jakin zuten. Hala ere, gol aukera nabarmenei ez zieten behar bezala erantzun, eta bakar bat egin ahal izan zen Hegoalde norgehiagoka osoan: alboko sakeari amaiera bikaina eman zion Isa Barriok, eta aurkariaren atezaina errektzioren gabe gertatu zen.

Gainerako minutuak berdinduagoak izan ziren: gol aukerak bi taldeentzat, eta markagailua sendotzeko parada, atezainengatik, zutoingatik eta defentsengatik izan ez balit. Tartean, atsedenaldirako hogeita hamar segundo falta zirenean, jaurtiketa makala

## GOIERRI ▶ 1

## HEGOALDE ▶ 1

**Goierri.** Ane Lizarraga, Izaskun Sanz, Virginia Delgado, Adriana Da Costa, Ana Berciano, Beatriz Martin, Iguntze Aseginolaza, Emilia Ugarte, Sara Ugarte eta Itziar Arazabalbeitia.

**Hegoalde.** Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Itziar Aldezabal, Nerea Salazar, Esther Videra, Gemma Zelaia, Maider Lopez, Nerea Arana, Isa Barrio, Naiara Mayo eta Arrate Martinez.

**Golak.** 0-1: Isa Barriok (14m.); 1-1: Adriana Da Costak (30m.).

**Epaileak.** Aitor Felipe eta Igor Gereta.

egin zuen Maider Lopezek 10 metroetatik. Denboraldiko irregulartasuna islatzen zuen partidua izan zen larunbatekoa: aurkariaren gainetik egon arren, puntuek ihes egiten diote Hegoalderi, batik bat gola sartzerakoan duen «definizio faltagatik». Datorrena larunbatean jokatuko du, 19:00etan hasita, Murciaren kontra.



ASTEASU ▶ KIROLA

# Gorputza mugitzeko aukera

Udalak Iharduera fisikoa eta kirolaren III. Jardunaldiak antolatu ditu

IMANOL GARCIA

Asteasuko Udalak eta kiroldegiak antolatuta gaurtik aurrera iharduera fisikoa eta kirolaren inguruko III. Jardunaldiak egingo dira herrian. Haurrentzako ekitaldiak antolatu dira batik bat, hirugarren urtea egiten duten jardunaldi hauetan.

Patinatzaile izango dira protagonistak lehenengo egunean. Lau urtetik aurrerako haurrak elkartuko dira frontoian. Bertan ginkana bat izango dute beren abilezia frogatzeko eta batez ere, bi ordutan zehar, ondo pasatzeko.

Hurrengo ekitaldia etzi egingo da. Orduan mahai tenisan aritzeko aukera izango dute frontoira gerturatzen direnek. Begirale bat izango da bertan eta jolas ezberdinen bidez, kirol hau ezagutzeko eta praktikatzeko.

Ostiralean, *Soul Purpose* filma ikusteko aukera izango da udaletxean. *Snowboard*-rako munduko espezialista onenek grabatutako irudiak erakusten dira.

Igandeetan, Ulibarri Ganboako urtegi inguruan bizikletan ibiltzeko aukera izango da. Leku paregabea da bi gurpil gainean haur eta helduak aritzeko. Izena emateko aukera eguna osteguna izango da.

Bestalde, aurrerago, Eskola Kirola Eguna antolatu dute. Hemen ere ginkana eitek aukera izango dute parte-hartzaileek. Txapelak banatuko dira haurren artean.

Azkenik, erakusketa bat dago ikusgai kiroldegian. Ku-

EGITARAUA ▶

APIRILAK 19, ASTEARTEA

**17:00etatik 18:45era.** Patinetan: jolastu eta kirola egin frontoian (lau urtetik aurrerako haurrentzat).

APIRILAK 21, OSTEGUNA

**17:00etatik 18:45era.** Mahai tenisa (hastapen iharduera), frontoian.

APIRILAK 22, OSTIRALA

**19:00.** Proiektzioa: *Soul Purpose* (Snowboard eta eskiari buruzko pelikula).

APIRILAK 24, IGANDEA

Ulibarri Ganboako urtegia bizikletan. Izena ematea hilaren 21a bitartean, Kultur Etxean.

MAIATZAK 7, LARUNBATA

**10:30etik aurrera.** Eskola Kirola Eguna. Pello Errota Ikastetxean, haurren arteko kirol topaketak.

APIRILAREN 22A ARTE

**Kiroldegia ordu egunetan.** Kiroldegian argazki erakusketa herri kirolei buruz.

txaren bitartez eramanda, hilaren 22a arte. Euskal herri kirolen argazki zahar eta ederrez gozatzeko parada.

ZIZURKIL ▶ KULTURA



Txalo antzerki taldeak atzo Atxulondon taularatu zuen *Xomorroak* obraren irudia. I. GARCIA

## Haurrak izango dira bihar antzezle antzerki tailerren emanaldietan

Atzo 'Xomorroak' obra; gaur, gurasoentzat, 'Ugatzun baten nahiak'

I. GARCIA

Zizurkilgo III. Antzerki Astea martxan jarri da jada. Gaur helduei zuzendutako antzezlanaz aurreratu da eta bihar antzerki tailerren emanaldia, non haurrak izango diren antzezle. Atzo bereziki haurrentzako *Xomorroak* antzezlanaz eskaini zuen Txalo antzerki taldeak. Obraren izenak berak azaltzen duen bezala, intsektu ezberdinak pasatu ziren ikusle goaren aurretik. Atxulondo Kultur Etxea haurrez bete zen eta lorontzi batean jaiotako euli baten gorabeherak erakusten zituen, bere ama ezzagunaren bila. Horretarako, hizkera argentinarra zuen kilker baten laguntza izan zuen.

Ikusle goari besteen berezitasunak errespetatzen erakusten dioten antzezlan hori bikain taularatu du Txalo taldeak, istorian zehar abestiak tartekatuz.

Gaurko antzezlanaz gurasoei zuzenduta dago bereziki. *Ugatzun baten nahiak*, Teresa Lopez de Muniain aktorearen bakarrizketa. Atxulondo kultur etxean ikusi ahalko da 18:00etatik aurrera. Aipatzeko da haurtzaindegi zerbitzua jarri duela Udalak. Antzezlanean, emakume batek bere jaiotzaren esperientziarekin egiten du topo ametsaren bitartez. Horrela, Esterrek bere haurtzaroko sentimenduen ezagutza-bidaia hasiko du. Garai bateko neska hark

beharrezkoak dituen helduei, heldu kontraesankorrei, iheskorrei, bere arazo eta mugen isla diren helduei egingo die aurre. Antzezle mintzo den neskekin harremana duten pertsonaia guztien tokian jarrito da. Bera da, baina aldi berean ama, aita, auzokoak eta irakaslea ere bada. Neska biziberritu honek ibilbide bat egingo du gurasoengandik seme-alabenganako transmisioa markatzen duten mito, iriti eta tentsioetan.

Bestalde, bihar herriko antzerki tailerretan dauden haurrek emanaldia eskainiko dute, urtean zehar egindako esperientziak baliatuz. Atxulondo kultur etxean izango da, 17:30etik aurrera.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK  
**ETXESAGASTI**

**Andoain.** Modernoa. Kapriboz eraberritua. 70 m<sup>2</sup>. Argitsua. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

**Andoain.** 104 m<sup>2</sup> erabilgarri. 4 logela, 2 balkoi. Berritzeko. Ikuspegiakin. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

**Asteasu.** Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lurra, garajea eta trastelekua. Etxesagasti

943 69 68 56.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko etxebizitza altu polita. 2 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 42.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

**Irura.** Eraikuntza berriko etxea. Egongela, sukaldia, 3 logela eta 2 bainugela. Eguzkitsua. Garajea eta trastelekua. 49.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

**Tolosa.** Eraikuntza berria. 85 m<sup>2</sup>-ko

etxea, bi terraza, garajea eta 100 m<sup>2</sup>-ko bokoa bainugelarekin. Giltzak irailan. Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** Erabat eraberritutako etxebizitza bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balkoiekin. 33.800.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** 3 logelako etxebizitza. Erdizka eraberritua. Igogailua. Trastelekua. 36.000.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 696 856.

**Villabona.** 72 m<sup>2</sup>. Egongela, sukaldia, 2 logela eta bainugela. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.

**Eskera handia** dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan. Ixaron [zerrenda dugu.](#)

## ELDUAIN-BERASTEGI ▶ GIZARTEA

# Errepidea berrituko dute bi herri artean

Diputatu Kontseiluak lanak lizitaziora ateratzera onartu berri du

NOELIA LATABURU

Elduain eta Berastegiko udalerrien artean, GI-2130 errepidearen 5,8 kilometro luze zoruaren egitura zaharberritzeko lanak lizitaziora ateratzea onartu zuten Diputatuen Kontseiluak, apirilaren 12ean.

Errepidearen zoria hondatuta dagoela eta egingo da zaharberritzea; Eduako auzorako errepidearekiko lotunean hasi —6.750 puntua Elduainen— eta A-15 autobiarekiko lotunean amaituko da, San Antuan gainean —12.550 puntua Berastegin—.

Lanen aurrekontua 808.000 eurokoa da eta lan hauek burutzeko epea, berriz, lau hilabete. Errepide honen luzera oro-

korra 16,2 kilometro osatzen dute eta 4.877 auto igarotzen dira egunera batez beste. Hauetatik %10a garraio pisutsuak dira.

Zaharberritze lan hauek Diputatuen Kontseiluak onartutako Gipuzkoako ekialdeko sareko —A barrutia deritzona— errepideen artapen lanak egiteko kontratuaren barnean sartzen da, non Bidasoa, Oarsoaldea, Donostialdea, Tolosaldea eta Goierri sartzen diren. Kontratututako lan hauen bitartez jarraipena emango zaie azken urteotan egiten diren artepen lanei, gehienbat errepideen konponketa lanak, ibilgarritasuna hobetzeko lanak eta istripuetan laguntza lu-  
zatea, esaterako.

## IBARRA ▶ KIROLA

## Lau partidetan erabakiko da ibartarren etorkizuna

Atsedendia ondo etorri zaie jokalariei indarberritu eta bixitasuna berreskuratzeko

INIÑO TERRADILLOS

Atsedendia izan du asteburu honetan Ibarra areto futbol taldeak. Pasa den asteko partidetako emaitzak kaltegarriak izan baziren, asteburu honetan Ultzamak, Jarrilerros-ek, Carnicerias Saenz-ek eta Burlatak egindakoa mesedegarria izan da Ibarrarentzat, denek ere galdu egin baitute. Gauzak horrela, badirudi aipaturiko taldeak Ibarrarekin batera 14. postutik at geratzeko lehian ibiliko direla azken unerarte.

Burlataren porrota izan da ezusteko hadiena eragin duena. Azken sei jardunaldietan punturik ez dute lortu nafarrek eta uneotan 3 puntuko abantaila dute Ibarrarekiko. Ibartarrentzat azkena, baina ligako azken aurreko partida izango dena Belabietan Burlata eta

Ibarraren artekoa izango da. Ibarrak izango du, hala ere, egoera zailena.

Datorren larunbatean sailkapenean zortzigarren postuan dagoen Albelda bisitatu-ko du Ibarrak, eta hurrengoan, berriz, etxean jokatu du Peñucas liderraren aurka. Salcedoren aurkakoa izango da hurrengoan, ondoren Burlataren aurka Belabietan eta azken jardunaldian atsedena izango du berriro Ibarrako taldeak. Lau partida erabakior izango dira eta gutxienez 9 puntu batu beharko ditu maila mantendu nahi badu.

Ibarra areto futbol taldeko jokalariei oso ondo etorri zaiei atsedendia, oso nekaturik baitzeuden, eta bixitasuna berreskuratzeko balio izan duela. Datorren larunbatekoan ikusi beharko da.

## BERASTEGI ▶

## Errioxa aldera egun pasa antolatu dute

Errioxako Dinastia Vivanco deritzon ardo museora joateko eta bertan ardoaren inguruan hainbat gauza ezagutu eta bazkaria egiteko aukera ematen du Gaztainondok. Maiatzaren 3an egingo da bigarrena eta 9:15ean abiatuko dira Errioxa aldera. Gaztainondoko elkarteko zuzendaritzan eman beharko da izena.

## IBARRA ▶

## Ainhoa Etxaideren hitzaldia bihar

Ibarrako Formakuntza eta Eraldaketarako bilguneak antolaturiko *Apirila Gorria* hirugarren astean sartu da. Bihar Ibarrako Kultur Etxean *Langileak gizarte imperialistan* hitzaldia izango da entzungai. Ainhoa Etxaidek eskainiko du hitzaldia eta 19:30ean hasiko da. Ostiral gauean Karibear Festa egingo dute Gaztetxean eta igandean *Pantera Beltzak* filma izango da ikusgai.

## BIDEGOIAN ▶

## Automakillaje ikastaroaren azken txanpa

Emakume jardunaldiaren harira, bihar amaitzen Karmen Larrarteren gidaritzapean Udalak antolatu duen automakillaje ikastaroa. 14:30ean izango da, balioaitzeko gelan. Jardunaldiei amaiera emateko ostiralean afaria egingo dute neskek.

## IBARRA ▶

## Hizkuntzaren garapenez hitzaldia

Hizkuntzaren garapena hitzaldia izango da etzi Uzturpe Haur Eskolan 18:30ean. Txupetea uztea, biberotik goilarara pasatzea eta arnasketari dagokion ohitura egokiak garatzeak onurak dakartzeko ahoak eta ortodontzi eta entzumen arazoaren prebentzioari. Gurasoek prozesu hau modu egokian nola bultzatu dezaketen azalduko du Marta Fernandez hizlariak.

## BELAUNTZA ▶

## Tutorearen bisita izango du bihar KZguneak

Bihar izango du tutorearen bisita KZguneak. 16:00etatik 20:00etara izango da eta 18:00etatik 20:00etara Zure seme-alabak nola babestu mintegia izango da.

## ALEGIA ▶

## AHTren akanpada antolatzeke lehen bilera gaur

Aurten AHTren aurkako akanpada Alegian egingo da, uztailaren 22tik 31ra. Prestatze eta antolatze lanak Hernani eta Goierri arteko jendearen artean egingo da. Gaur 19:30ean egingo da, hain zuzen, akanpada honen nondik norakoak antolatzeke lehen bilera Alegiako Gaztetxean.



Alizia Sturtzeren hitzaldia. i.t.

## AMEZKETA ▶

## Osasunerako jardunaldien hitzaldia gaur

Gaur 16:30ean Amezketa biltokiaren Hurkoak eta Kutxak antolaturiko hitzaldia eskainiko dute. Programak Alzheimerren gainera hainbat puntu aztertuko ditu, gaitzaren garapena, arreta neurriak eta lege babesak, besteak beste.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

## ▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23

**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03

**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34

**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29

**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

**Orendain.** Medikua: 65 55 95

**Orexa.** Medikua: 68 22 28

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerazko aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Olarreaga, J. Martin Jose

Iraola 10. 943 67 24 38 (Tolosa)

Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza).

112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_public@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoeta.** 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarraldea.** 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ KIROLA

# Aurrerak ez daki txapela berea denentz

Liga bukatu bada ere, oraindik ez diote horren berri zehatzik jakinarazi

JAIONE ASTIBIA

Nafarroako Lurraldeko 1. Mailako Ligako azkeneko partidua lehengo igandean, apirilak 10, jokatu bazen ere, eta han eskuratutako emaitzaren arabera, ustez, behinik behin, eta aurreneko taldeari dagokionez, Leitzako Aurrera futbol taldeak lortu ligako txapelketa, horren gaineko erabaki garbirik ez dute jakin oraindik leitzarrek. Hau da marka.

Ligako lehen postu horretarako borrokan, Aurrerarekin batera Baztan taldea zebilen. Partidu baten faltan, puntuei erreparatu, biek berdin ziren. Horrela, azken partidu horretako emaitza erabakiorra zen: «Aurrerak bere aldetik irabazi eta Baztanek, berriz, berdinke eta edo galduz gero, liga leitzarrentzat izanen zela argitu zuten bere garaian, taldeko arduradunek. Hori teoriaran.

Gogoratu behar da, otsailean arbitroek egin zuten protestaldi bat zela-eta, beste partidu bat jokatzeko zutela talde guztiak. Horrela, Aurrerari etxean eta Huarteren aurka jokatu beharreko partidua gelditzen zitzaion. Hau, igande ho-

netan jokatzeko bazen ere, aurrekora igaro zieten, «azken orduko dei baten bidez», HITZARI taldearen arduradunek adierazi ziotenez.

Jokatu zuten, bada, partidu hori eta baita irabazi ere, 2 eta 1eko emaitza lortu baitzuen Aurrerak, Olano eta Gomezek sartutako golei esker: «erraz samar irabazi genuen gainera, aurkariak ez baitzuten jokoan sartzen asmatzen», zioten, bide batez. Horrela, garaipena eskuetan zutela, baztandarrek zer egiten zuten erreparaoan gelditu omen ziren. Baztanek berdinketarekin bukatu zuen partidua bere aldetik. Gauzak horrela, Aurrera txapeldun zen! Uste horretakoak dira behinik behin hemengo taldekoak.

Baina nonbait bada akatsen bat, izan ere HITZARI jakitera eman ziotenez, oraindik federaziotik ez omen dute jakinarazpen garbirik jaso, nonbait «kontuan aldeko golak edo kontrako golak hartuko dituzten, ez omen dute eta argi». Kezkaturik ageri ziren Aurreran, igoerako fasea laister hasztekoa izaki, oraindik arerioen berririk ez dutelako.



## Kontuak kontatzen ikasten gogo betez

LEITZA ▶ Larunbat goizean elkartu ziren liburutegian, ipuin kontaketa ikastarora joandakoak, eta Pello Añorgaren esanak adi asko jarraitu zituzten, apunteak jasoz edo gozogan hartuz, eta baita ikasitako praktikatu

ere, hantxe aritu ziren ahotsari soinu desberdinak ateraz, imintzioak eginez... ipuinak kontatuz. Gehiago ikasi nahi, ordea, eta Kultur Taldekoen esanetan hurrengo maitzaren 7an, beste saio bat egitekotan gelditu ziren. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ PILOTA

## Ibai Bengoetxea eta Iñaki Iparragirre GRAVN torneoko finalerdia irago dira

Errioxarren aurka jokatu eta 22-08ko emaitza eskuratu dute

J. ASTIBIA

Larunbatean zuten partidua leitzarrek, Nafarroa eta Errioxa artekoan, GRAVN Torneoan. Camani eta Trapero izan zituzten aurrez-aurre, eta garaile atera ziren, 22 eta 8ko emaitza-

rekin. Ibai Bengoetxeak berak adierazi zuenez, «hasieran eutsi baziguten ere, tanto asko gaitzen hasi ziren arerioak eta guk ere mordoxka bat egin genituen».

Garaipen honek finalerdia jokatzeko baliko die, hurrengo

asteburuan izanen da hori, non eta zeinen aurka, zehazteko dagoen arren. Hortik aterako da GRAVNeke bi-bitako bikote finalista bat. Besteia, jokaturako partidu guztiak irabazita izateagatik, zuzenean sailkatuta dago: Gipuzkoako bikotea.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-mail: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Alegia.** San Joan kalean 161 m2-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederekin.

**Berrobi.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku

eta garajearekin.

**Berrobi.** Pisu ederra 3 logela eta 2 balkoiekin. Dena kanpoaldera, eguzkitsua.

**Donostia.** Sagues auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

**Ibarra.** San Ignazio auzoan. Etxebizitza berokuntzarekin.

**Ibarra.** Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

**Ikaztegieta.** 6 etxe abixikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

**Irura.** Ibai aldera. 3 logela eta bi bainugela. Trasteleku eta garajearekin. Ezin hobeto.

**Irura.** Borda ikusgarria, ikusteko modukoa !!!

**Tolosaldea.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarr zoragarria salgai. Terraza eta lorategiarekin. Ikusgarria !!!

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat

etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Dekoratuak kapritxo apaindutako apartamentua terraza eguzkitsuarekin. Gazteentzat egokia!!!!

**Tolosa.** Korreo. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Berokuntza. Sartzeko moduan. 168.285 euro.

**Tolosa.** Larramendi. Duela gutxioko eraikuntza 2 logelako etxebizitza salgai berokuntza, igogailu eta trastelekuarekin. 222.375 euro.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Amaro auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak eta berritzeko daudenak salgai.

**Tolosa.** Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

**Tolosa.** Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua).

Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

**Ikusteko modukoa !!!**

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

**Tolosa.** Iurre. 2 logela, sukaldia, egongela, bainugela.

Oso egoera onean.

**Tolosa.** Larramendi. 3 logela, egongela, sukaldia berritua.

**2 bainugela. Igogailua.**

**Tolosa.** Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Trasteleku eta berokuntzarekin.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra.

**Ezin hobeto !!**

**Tolosa.** Zumalakarregi ibiltokian, 101 eta 109 m2-ko bi etxebizitza bikainak. Estreinatzeko, erabat berritua izan ondoren. Kalitate oso onak.

**Igogailu eta berokuntzarekin !!!**

**Tolosa.** San Frantzisko. 46 m2-ko lokal komertziala.

**Tolosa.** Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

**Villabona.** Arroa. Oso egoera onean dagoen etxebizitza argitsua salgai.

**Ikusteko modukoa. 288.486 euro.**

**Villabona.** Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

**Zizurkil.** Ernio Bidea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela.

Trasteleku pisan + ganbaran. Ezin hobeto.

